

<u>OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO</u>	
<u>2024KO URRIAREN 28A / 28 DE OCTUBRE DE 2024</u>	
BERTARATUAK / ASISTENTES	
<u>IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL</u> D. Daniel Salazar Irusta jauna	<u>ALKATEA / ALCALDE</u> D. Jon Iraola Iriondo jauna <u>ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE</u> Dña. Ana Telleria Echeverria andrea Dña. Vanesa Hortas Mojón andrea D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna <u>ZINEGOTZIAK / CONCEJALES</u> Dña. Sofía Archeli Mesonero andrea D. Andoni Zabala Atristain jauna D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna D. Andoni Amezttoy Barón jauna Dña. Arantzazu Mata Eguiguren andrea Dña. Nerea Barruetaña Garate andrea D. Julián Manuel Díaz Gutiérrez jauna Dña. Hiart Cabrera Ansola andrea Dña. Leire Alberdi Arriola andrea Dña. Ainhoa Ormazabal Igoa andrea D. Josu Mendicute Rodríguez jauna Dña. Amaia Albizu Llubia andrea Dña. María Elena Ibañez Anuncibay andrea Dña. María Mercedes Garate Larrañaga andrea D. Jon Pérez Illana jauna. D. Alberto de la Hoz Gorriti jauna Dña. María Isabel Fernández Pejenaute

Akta hau Osoko Bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:

La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:

<http://bideoaktak.eibar.eus?pleno=20241028&instante=1>

Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, bi mila eta hogeita lauko urriaren hogeita zortzian, arratsaldeko zazpiak izanik, Udalbatza bildu zen ohiko bilkuran, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Ibañez Anuncibay andreak esana zuten ezingo zirela etorri.

Alkate-udalburu jaunak hasiera eman dio bilerari.

Alkate-udalburuak azaldu duenez, eguneko aztergaien zerrendari heldu baino lehen, gai hauek gai-zerrendan sartzea bozkatu behar da.

GAI-ZERRENDATIK KANPO

Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, honako hau bozkatu da: Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordeak 2024ko urriaren 25ean erabakitako gaia premiazkotzat jotzea eta gai-zerrendan sartzea:

- 2023ko Kontu Orokorra onartzea.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las diecinueve horas del día veintiocho de octubre de dos mil veinticuatro, se reunió en sesión ordinaria el pleno municipal, formado por las señoras y señores anteriormente mencionadas/os; habiendo justificado su ausencia la señora Ibañez Anuncibay.

El Sr. Alcalde-Presidente declara abierta la sesión.

Expone el **Sr. Alcalde-Presidente** que antes de abordar los asuntos del orden del día, procede someter a votación la inclusión en el mismo de los siguientes asuntos:

FUERA DEL ORDEN DEL DÍA

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, se somete a votación la declaración de urgencia e inclusión en el orden del día de los siguientes asuntos dictaminados por la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de fecha 25 de octubre de 2024:

- Aprobación de la Cuenta General del año 2023.

Premiaren aitorpena botaziora eraman ondoren, etorritako jaun-andre guztiek aho batez onartu dute.

- 2023ko abenduaren 31ko Udal Inbentarioari onespena emateko proposamena.

Premiaren aitorpena botaziora eraman ondoren, etorritako jaun-andre guztiek aho batez onartu dute.

Arestian aipatutako gai horiek gai-zerrendaren 9. eta 10. puntu gisa sartu dira. Jarraian honako gai-zerrenda hau aztertu da:

GAI-ZERRENDA

1. 2024ko irailaren 27ko eta 30eko bilkurei dagozkion akta-zirriborroak onartzea.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUAK.

ALDEKO BOTOAK: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 7 - Eibarko EH Bildu, (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

2024ko irailaren 27ko eta 30eko bilkurei

Sometida a votación la declaración de urgencia, es aprobada por unanimidad de los señores y señoras asistentes.

- Propuesta de aprobación del Inventario Municipal a 31 de diciembre de 2023.

Sometida a votación la declaración de urgencia, es aprobada por unanimidad de los señores y señoras asistentes.

Quedan incorporados los asuntos precedentes como puntos 9º y 10º del orden del día. Seguidamente se procede a tratar el siguiente

ORDEN DEL DÍA

1. Aprobación de los borradores de actas correspondientes a las sesiones de 27 y 30 de septiembre de 2024.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADOS.

VOTOS A FAVOR: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 7 - Eibarko EH Bildu (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

Sometidos a votación los borradores de

dagozkien akta-zirriborroak bozkatu ondoren, onartu egin dira eta aktatzat hartu.

actas correspondientes a las sesiones de 27 y 30 de septiembre de 2024, quedan aprobados, siendo elevados a actas.

2. Alkatetzaren ebazpenen berri ematea.

2. Dación de cuentas de resoluciones de Alcaldía.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratuda.

El Pleno se da por enterado.

3. PSE-EE (PSOE) udal-taldeko bozeramale andrearen idatzia, hainbat batzordetan bokalen aldaketen berri emateko. [ID0001-000741/2024](#)

3. Dación de Cuentas del escrito de la Sra. Portavoz del grupo municipal del PSE-EE (PSOE) de cambio de vocalías en diferentes Comisiones. [ID0001-000741/2024](#)

Udal Batzarra jakinaren gainean geratuda.

El Pleno se da por enterado.

Nik, Ana Telleria Echeverriak, PSE-EE (PSOE) udal-taldeko bozeramaileak, batzordeetako ordezkaritzetan egon diren aldaketen berri ematen dut:

Yo, Ana Telleria Echeverria, Portavoz del Grupo municipal PSE-EE (PSOE), comunico los siguientes cambios en las vocalías de las comisiones.

BATZORDE AHOLKULARIETAKO BATZORDEKIDEEN IZENDAPENA

DESIGNACIÓN DE VOCALES EN COMISIONES ASESORAS

Ogasun Batzorde Aholkularia

Comisión Asesora de Hacienda

Titularra: Andoni Ameztoy Barrón

Titular: Andoni Ameztoy Barrón

Ordezkoa: Vanesa Hortas Mojón

Suplente: Vanesa Hortas Mojón

Zerbitzu Batzorde Aholkularia

Titularra: Andoni Ameztoy Barrón

Ordezkoa: Patxi Lejardi Galarraga

Comisión Asesora de Servicios

Titular: Andoni Ameztoy Barrón

Suplente: Patxi Lejardi Galarraga

Kiroleko Batzorde Aholkularia

Titularra: Sonia Archeli Mesonero

Ordezkoa: Ana Telleria Echeverria

Comisión Asesora de Deportes

Titular: Sonia Archeli Mesonero

Suplente: Ana Telleria Echeverria

Ekonomia Garapenerako, Enplegurako eta Berrikuntzarako Batzorde Aholkularia

Ordezkoa: Andoni Ameztoy Barrón

Comisión Asesora de desarrollo Económico, Empleo e Innovación

Suplente: Andoni Ameztoy Barrón

Obretako Batzorde Aholkularia

Ordezkoa: Andoni Ameztoy Barrón

Comisión Asesora de Obras

Suplente: Andoni Ameztoy Barrón

BATZORDEKIDEEN IZENDAPENA LAN BATZORDEETARAKO**Erakunde, Lurralde eta Lege-gaietarako Lan Batzordea**

Titularra: Andoni Ameztoy Barrón
(ordezkoa: Sofía Archeli Mesonero)

DESIGNACIÓN DE VOCALES EN COMISIONES DE TRABAJO**Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales**

Titular: Andoni Ameztoy Barrón (suplente: Sofía Archeli Mesonero)

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordea.

Titularra: Andoni Ameztoy Barrón
(ordezkoa: Andoni Zabala Atristain)

Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio

Titular: Andoni Ameztoy Barrón (suplente: Andoni Zabala Atristain)

Obra, Hirigintza eta Ingurumen Lan Batzordea

Titularra: Vanesa Hortas Mojón (ordezkoa: Andoni Amezttoy Barrón)

Comisión de Trabajo de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente

Titular: Vanesa Hortas Mojón (suplente: Andoni Amezttoy Barrón)

Pertsonal Lan Batzordea

Titularra: Vanesa Hortas Mojón (ordezkoa: Patxi Lejardi Galarraga)

Titularra: Ana Telleria Echeverria (ordezkoa: Pedro Escribano Ruiz de la Torre)

Titularra: Sofía Archeli Mesonero (ordezkoa: Andoni Amezttoy Barrón)

Comisión de Trabajo de Personal

Titular: Vanesa Hortas Mojón (suplente: Patxi Lejardi Galarraga)

Titular: Ana Telleria Echeverria (suplente: Pedro Escribano Ruiz de la Torre)

Titular: Sofía Archeli Mesonero (suplente: Andoni Amezttoy Barrón)

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko 88/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emandako Epaiaren berri ematea. Auzi-errekurtso hori María Jesús Arizaga Telleria andreak jarri zuen 2022-2-28ko Udalbatzaren akordioaren aurka, zeinak ezetsi egiten baitzuen Eibarko trenbide-trazaduraren hiri-integrazioa hobetzeko “Euskal Trenbide Sarea” zuzenbide pribatuko entitate publikoaren eta Eibarko Udalaren artean egindako lankidetzaren hitzarmena (Eibar-Azitaingo geltokia tartea) onartzeko hartutako erabakiaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa. [ID0001-000752/2024](#)

4. Dación de cuentas de la Sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco recaída en recurso ordinario 88/2023 interpuesto por Dña. María Jesús Arizaga Telleria contra acuerdo de Pleno del Ayuntamiento de 28-2-2022 que desestimaba el recurso de reposición interpuesto a la aprobación del convenio de colaboración entre el ente público de derecho privado “Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea” y el Ayuntamiento de Eibar, para la mejora de la integración urbana del trazado ferroviario de Eibar (tramo estación de Eibar-Azitain). [ID0001-000752/2024](#).

Udal Batzarra jakinaren gainean geratuda.

El Pleno se da por enterado.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako Lehen Sekzioak 88/23 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emandako 345/2024 epaiaren berri eman da. Auzi-errekurtso hori María Jesús Arizaga Telleria andreak jari zuen 2022-2-28ko Udalbatzaren akordioaren aurka, zeinak ezetsi egiten baitzuen Eibarko trenbide-trazaduraren hiri-integrazioa hobetzeko "Euskal Trenbide Sarea" zuzenbide pribatuko entitate publikoaren eta Eibarko Udalaren artean egindako lankidetzaz hitzarmena (Eibar-Azitaingo geltokia tartea) onartzeko hartutako erabakiaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa.

Se da cuenta de la sentencia nº 345/2024 dictada por la Sección Primera de la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el Recurso Contencioso-Administrativo 88/23, interpuesto contra acuerdo de Pleno del Ayuntamiento de 28-2-2022 que desestimaba el recurso de reposición interpuesto a la aprobación del convenio de colaboración entre el ente público de derecho privado "Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea" y el Ayuntamiento de Eibar, para la mejora de la integración urbana del trazado ferroviario de Eibar (tramo estación de Eibar-Azitain).

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ezetsi egin du aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Epai honen aurka, alderdi demandatzaileak kasazio-errekurtsoa aurkez dezake 30 eguneko epean, eta sortutako kostuak ordaintzera kondenatzen du alderdi demandatzailea.

El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, desestima el recurso contencioso-administrativo planteado. Frente a esta sentencia la parte demandante puede interponer recurso de casación en el plazo de 30 días, condenando a la parte demandante a las costas causadas.

5. Gertakari arrazista, xenofobo, antigitano edota LGBTIfobikoen aurrean jarduteko Eibarko Udalak duen

5. Aprobación del Protocolo de actuación ante incidentes racistas, xenófobos, antigitanos, y

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

Ikusita, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Aholkulariaren proposamena eta teknikoak egindako txostena,

Ondorioz, kontuan hartuta 2024ko urriaren 21eko Erakunde, Lege eta Lurralde Gaietako Lan Batzordearen aldeko irizpena,

Udalbatzak honako erabaki hau hartu du:

AKORDIOA

Eibarko Udalaren gertakari arrazista, xenofobo, antigitano edota LGTBIfobikoen aurrean jarduteko Protokoloa onartzea.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Vista la propuesta de la Comisión Asesora de Servicios Sociales y el informe técnico emitido,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Trabajo Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales, de fecha 21 de octubre de 2024,

El Pleno Municipal adopta el siguiente

ACUERDO

Aprobar el Protocolo de actuación ante incidentes racistas, xenófobos, antigitanos, y LGTBIfóbicos del Ayuntamiento de Eibar.

6. Gipuzkoako Taxilarien Elkartek egindako proposamena 2025eko tarifak onartzeko. [ID0001-000657/2024](#)

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 15 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - Eibarko EH Bildu.

Gipuzkoako Taxilarien Elkartek egin duen idazkian 2025eko tarifak berrikusteko proposamena egin du. Izan ere, egindako azterketa ekonomikoaren arabera, eta, kontuan hartuta jarduera horretan aritzeak dakarkien kostuaren gehiegizko igoera, lanordu kopurua, eta erregai eta aseguruaren prezioa, 2025eko tarifak eguneratu beharra ikusten dute, Debabarrena eskualdean aplikatzeko.

Ondorioz, kontuan hartuta 2024ko urriaren 21eko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena,

6. Propuesta de la Asociación Guipuzcoana del Taxi de aprobación de tarifas auto-taxi, para el año 2025. [ID0001-000657/2024](#)

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 15 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 6 - Eibarko EH Bildu.

La Asociación Guipuzcoana del Taxi expone en su escrito que según el estudio económico realizado y teniendo en cuenta también el desmesurado incremento del coste de desempeño de la actividad, el número de horas de trabajo, el precio de los combustibles y seguros, ha realizado una propuesta de revisión de tarifas para el próximo año 2025 para aplicarla al ámbito de la comarca del Bajo Deba.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de fecha 21 de octubre de 2024,

Udalbatzak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno Municipal adopta el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

BAKARRA.- 2025erako auto taxien tarifa % 2,9 igotzea.

ÚNICO.- Incrementar un 2,9 % la tarifa de auto-taxi para el año 2025.

2025erako HERRI BARRUKO TARIFA-PROPOSAMENA / PROPUESTA TARIFA URBANA 2025					
TARIFA 1*/ 1. TARIFA			2. TARIFA / TARIFA 2**		
GUTXIENeko TARIFA / Tarifa Mínima	EGINDAKO KILOMETRO BAKOITZEKO / Kilómetro recorrido	ITXARON -ORDUA /Hora de espera	GUTXIENeko TARIFA / Tarifa Mínima	EGINDAKO O KILOMETRO BAKOITZEKO / Kilómetro recorrido	ITXARON-ORDUA / Hora de espera
6,3076	1,5795	21,1115	6,8682	1,7481	22,1992

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo bost minutuko itxaronaldia hartzen du.

La tarifa mínima incluye 1,5 Km. De recorrido o cinco minutos de espera.

(*) Tarifa hau lanegun edo astegunetan aplikatuko da 07:00etatik 22:00etara.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22:00 horas.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. tarifa 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, baita larunbatetan, abenduaren 24an eta 31n, ekainaren 24an (San Juan), irailaren 8an (Arrateko

(**) Esta tarifa será aplicable todos los días desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados, y los días 24 de diciembre y 31 de diciembre y los días 24 de junio

Andre Maria) eta azaroaren 30ean (San Andres).

San Juan, 8 de septiembre N. Sra. de Arrate y 30 de noviembre San Andrés.

7. Urkizu Pasealekuko 11 zenbakian dagoen higiezinaren doako lagapena egitea "...eta kitto" euskara elkarteari.
[ID9000-000115/2024.](#)

7. Cesión gratuita del inmueble ubicado en el Paseo Urkizu nº 11 a la Asociación de euskera "...eta kitto!".
[ID9000-000115/2024.](#)

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Ikusita Euskara Saileko zuzendariaren txostena, Urkizu pasealekuko 11, zenbakian dagoen lokalaren erabilera "...eta kitto! Euskara Elkarte"ri lagatzeko eskaera berritzeari buruzkoa.

Visto el informe de la Directora del Departamento de Euskera en referencia a la solicitud de renovación de cesión de uso del local sito en Paseo Urkizu nº 11 a la Asociación "... Eta kitto! Euskara Elkarte

Kontu-hartzaile jaunak, Udal Idazkari jaunak eta Hirigintza Arloko Zuzendariak honelakoetan nahitaezkoak diren txostenak eginda.

Emitidos los preceptivos informes por parte del Interventor de Fondos, Secretario General y Directora del Departamento de Urbanismo.

Kontuan hartuta “Eta kitto! Euskara Elkartea herriaren onerako diru irabazi asmo bariko elkarte bat dela.

Considerando la condición de la asociación “Eta kitto!” de asociación sin ánimo de lucro de interés municipal.

Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 109.2 artikuluan eta udal lokalen lagapena eta erabilera arautzen dituen ordenantza arauemailaren 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 109.2 79 del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales y en los artículos 2 y 3 de la Ordenanza reguladora de la cesión y uso de los locales municipales

Ondorioz, kontuan hartuta 2024ko urriaren 21eko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de fecha 21 de octubre de 2024,

Udalbatzak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno Municipal adopta el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

AURRENA: Eibarko Udalak, “...eta kitto! Euskara Elkartea”ri erabiltzen uzten dio Urkizu pasealekuaren 11n dagoen lokalaren 13. zati pribatiboa, errektangelu itxurakoa eta 310 metro koadro dituen, hamar urtez erabiltzen uztea.

Lagapena doakoa izango da.

PRIMERO.- Ceder por parte del Ayuntamiento de Eibar a “...eta kitto! Euskara Elkartea” el uso del local que hace la parte privativa número 13 del número 11 de Paseo de Urkizu de forma rectangular y de 310 metro cuadrados, por un plazo de diez años.

La cesión será gratuita.

BIGARRENA.- Lagapen honen espedientea jendaurrean uztea hamabost egunez, alegazioetarako. Epe hori amaitzen denean, alegazioren bat aurkeztuko balitz, Udal Osoko bilkura honek emango luke horren inguruko ebazpena; alegaziorik egon ezean, aurreko atalean jasotako lagapena behin betikoz onartutzat joko da.

HIRUGARRENA.- Bete behar diren gainerako izapide guztiak betetzea, Jon Iraola Iriondo alkate jaunari lagapen-dokumentua izenpetzeko baimena emanda.

8. Nerea Beitia Tellería andrea normalizatzaile izendatzea.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

SEGUNDO.- Someter el expediente de la presente cesión a información pública por espacio de quince días para alegaciones, a cuyo término, caso de presentarse alguna alegación, se resolverá sobre la misma por este Pleno, y caso contrario de no presentarse ninguna, se dará por definitivamente aprobada la cesión recogida en el punto anterior.

TERCERO.- Dar cumplimiento al resto de los trámites procedentes, autorizando al Sr. Alcalde-Presidente D. Jon Iraola Iriondo para la firma del documento de cesión.

8. Nombramiento de Dña. Nerea Beitia Tellería como normalizadora.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Ikusi ondoren Pertsonaleko teknikariaren txostena eta Euskara Teknikariaren txostena,

A la vista de los informes emitidos por la Técnica de personal y la Técnica de Euskera,

Kontuan hartuta 2024ko urriaren 23ko Pertsonal Lan Batzordearen aldeko irizpena,

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Personal de fecha 23 de octubre de 2024,

Udalbatzak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno Municipal adopta el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

Nerea Beitia Tellería normalizatzaile izendatzea 2024ko uztailaren 1etik, 15 ordainsari-mailarekin, 2015eko martxoaren 30eko Udal bilkurak erabakitakoaren arabera. Normalizatzaile-lan horien artean, langileak itzultzaile-funtzioak egingo ditu bere lanaldiaren % 50 eta % 75eko proportzioan.

Nombrar a Dña. Nerea Beitia Tellería como normalizadora desde el 1 de julio de 2024 con un nivel retributivo 15, de acuerdo a lo aprobado por el Pleno municipal de 30 de marzo de 2015. Entre las tareas de normalizadora, la trabajadora realizará funciones de traductora entre el 50% y el 75% de su jornada laboral.

GAI-ZERRENDATIK KANPO

FUERA DEL ORDEN DEL DÍA

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta aho batez berretsitako urgentziazko deklarazioa

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y previa declaración de urgencia ratificada por

egin ondoren, honako gai hau aztertu da:

9. 2023ko Kontu Orokorra onartzea.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 8 - PSE-EE (PSOE) (8).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 13 - Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

2023. urteko Kontu Orokorra jendaurrean egon da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikulua ezarritakoa betez; inork ez dio ez erreklamaziorik eta ezta idatzizko oharrik ere egin.

Ondorioz, kontuan hartuta 2024ko urriaren 25eko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena,

unanimidad, se pasa a tratar el siguiente asunto:

9. Aprobación de la Cuenta General del año 2023.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 8 - PSE-EE (PSOE).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 13 - Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

La Cuenta General del año 2023 ha sido expuesta al público en cumplimiento de lo establecido en el art. 63.3 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y no se han presentado reclamaciones ni observaciones por escrito a la misma.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de fecha 25 de octubre de 2024,

Udalbatzak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno Municipal adopta el siguiente

ERABAKIA

ACUERDO

Bakarra.- 2023eko Kontu Orokorra onartzea.

Único.- Aprobar la Cuenta General del año 2023.

10. 2023ko abenduaren 31ko Udal Inbentarioari onespena emateko proposamena.

10. Propuesta de aprobación del Inventario Municipal a 31 de diciembre de 2023.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 8 - PSE-EE (PSOE) (8).

VOTOS A FAVOR: 8 - PSE-EE (PSOE).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: 13 - Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

ABSTENCIONES: 13 - Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

Udal Idazkariak Udal Ondasunen Inbentarioa aurkeztu du, 2023eko abenduaren 31ko datarekin, Toki Erakundeetako Ondasunen Araudiaren 34. artikulua dioenari jarraituz.

El Secretario Municipal presenta el Inventario de Bienes a fecha 31 de diciembre de 2023, en aplicación del art. 34 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

Ondorioz, kontuan hartuta 2024ko urriaren 25eko Kontu, Ogasun eta

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Trabajo de Cuentas,

Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena,

Hacienda y Patrimonio de fecha 25 de octubre de 2024,

Udalbatzak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno Municipal adopta el siguiente

ERABAKIA

ACUERDO

Bakarra.- 2023eko abenduaren 31ko Udal Ondasunen Inbentarioa onartzea.

Único.- Aprobar el Inventario Municipal de Bienes a 31 de diciembre de 2023.

2022ko INBENTARIOAREN BALORAZIOA / VALORACIÓN INVENTARIO 2022

1. KAPITULUA / 1º CAPÍTULO	HIGIEZINAK / INMUEBLES	137.120.338,54
2. KAPITULUA / 2º CAPÍTULO	ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES	69.888,23
3. KAPITULUA / 3º CAPÍTULO	IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO	134.448,65
4. KAPITULUA / 4º CAPÍTULO	BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS	421.889,12
5. KAPITULUA / 5º CAPÍTULO	IBILGAILUAK / VEHÍCULOS	853.633,69
6. KAPITULUA / 6º CAPÍTULO	ABEREA/SEMOVIENTE	570,96
7. KAPITULUA / 7º CAPÍTULO	ALTZARIAK/MUEBLES	6.144.756,28
8. KAPITULUA / 8º CAPÍTULO	ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES	776.586,84
	GUZTIRA/TOTAL	145.522.112,31

2023KO ALTAK

01. HIGIEZINAK / INMUEBLES	4.385.847,92
02. ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES	0,00
03. IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO	0,00
04. BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS	0,00
05. IBILGAILUAK/VEHÍCULOS	0,00
06. ABEREA/SEMOVIENTE	0,00
07. ALTZARIAK/MUEBLES	348.302,89
08. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES	0,00
ALTAK, GUZTIRA / TOTAL ALTAS	<u>4.734.150,81</u>

2023KO BAJAK

01. HIGIEZINAK / INMUEBLES:	101.794,51
02. ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES:	0,00
03. IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO	0,00
04. BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS	0,00
05. IBILGAILUAK / VEHÍCULOS	10.015,87
06. ABEREA / SEMOVIENTE	0,00
07. ALTZARIAK / MUEBLES	49.031,97
08. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES	0,00
BAJAK GUZTIRA / TOTAL BAJAS	<u>160.842,35</u>

VALORACIÓN INVENTARIO 2023/ 2023KO INBENTARIOAREN BALORAZIOA

1. KAPITULUA / 1º CAPÍTULO	HIGIEZINAK / INMUEBLES	141.404.391,95
2. KAPITULUA / 2º CAPÍTULO	ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES	69.888,23
3. KAPITULUA / 3º CAPÍTULO	IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO	134.448,65
4. KAPITULUA / 4º CAPÍTULO	BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS	421.889,12
5. KAPITULUA / 5º CAPÍTULO	IBILGAILUAK / VEHÍCULOS	843.617,82
6. KAPITULUA / 6º CAPÍTULO	ABEREA/SEMOVIENTE	570,96
7. KAPITULUA / 7º CAPÍTULO	ALTZARIAK/MUEBLES	6.444.027,20
8. KAPITULUA / 8º CAPÍTULO	ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES	776.586,84
GUZTIRA/TOTAL		150.095.420,77

ALTAK / ALTAS

1.01	<u>ERAIKINAK / EDIFICIOS</u>	
215-00001	Merkataritza-lokala San Andres kaleko 4,5,6 / Local comercial c/ S. Andres 4, 5, 6	690.525,83
1087-00004	Etxebizitza Arragueta 16an / Vivienda Arragueta nº 16	85.088,36
118-00001	Pagaegikorta baserria / Caseria Pagaegikorta	93.450,00
1090-00010	Eraikin industrial Barrena 34an / Edificio Industria en Barrena 34	565.790,00
1053-20588	Komun autogarbigarria Egogainen / Cabina aseo autolimpiable en c/ Ego Gain	55.148,84
153-00000	Andretxea	1.078.208,10
GUZTIRA/ TOTAL		2.568.211,13

1.08	<u>LURSAILAK / TERRENOS</u>		
MAT	118-00000	<i>Lursaila. Pagaegikorta baserria / Terreno Caseria Pagaegi Korta</i>	79.874,21
		GUZTIRA/ TOTAL	79.874,21

1.09	<u>AZPIEGITURA / INFRAESTRUCTURA</u>		
	1062-00004	<i>Igogailu komunitarioa Ubitxa/S. Kristobal 1.c zk. / Ascensor Comunitario nº 1 c/ Ubitxa-S.Kristobal</i>	721.442,98
	1062-00005	<i>Igogailu komunitarioa Ubitxa/S. Kristobal 2.c zk. Ascensor Comunitario nº 2 c/ Ubitxa-S.Kristobal</i>	1.016.319,60
		GUZTIRA/ TOTAL	1.737.762,58

7.01	<u>HIRI-ALTZARIAK / MOBILIARIO</u>		
	ALTEN LABURPENA / RESUMEN DE LAS ALTAS		
		GUZTIRA/TOTAL	348.302,89
		2023KO ALTAK, GUZTIRA / TOTAL ALTAS 2023	4.734.150,81

BAJAK / BAJAS

1.01	<u>ERAIKINAK/ EDIFICIOS</u>		
	215-00001	<i>ESan Andres etxebizitza-eraikina / edificio Vivienda San Andres</i>	0,00
	1067-00006	<i>Asola Igartzako garajeen 36 plaza / 36 plazas garajes Asola Igartza 10</i>	101.794,51
		GUZTIRA/TOTAL	101.794,51

5.02**IBILGAILUAK / VEHÍCULOS**

1-09032	Dumper Uro Mod. Vk-2000	10.015,87
---------	-------------------------	-----------

	GUZTIRA/TOTAL	10.015,87
--	----------------------	------------------

ALTZARIAK / MOBILIARIO

	BAJAK, LAPURPENA / RESUMEN BAJAS	49.031,97
--	----------------------------------	-----------

	GUZTIRA/TOTAL	49.031,97
--	----------------------	------------------

	GUZTIRA, 2023KO BAJAK / TOTAL BAJAS 2023	160.842,35
--	---	-------------------

11. Eibarko EAJ-PNV udal-taldeko kide diren Amaia Albizu LLubia eta Josu Mendicute Rodiriguez zinegotziek karguari uko egin diotela-eta, jakinaren gainean geratzea. [ID0001-000775/2024](#) -- [ID0001-000801/2024](#).

Ikusita Amaia Albizu LLubia andreak eta Josu Mendicute Rodríguez jaunak, Eibarko EAJ-PNV udal-taldeko kideek, Eibarko EAJ-PNV udal-taldeko zinegotzi-karguei uko egiteko sinatutako idatziak.

11. Toma de conocimiento de las renunciaciones presentadas a sus cargos de concejala y concejal por Dña. Amaia Albizu LLubia, y por D. Josu Mendicute Rodriguez; integrantes del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV. [ID0001-000775/2024](#) -- [ID0001-000801/2024](#).

Vistos los escritos de renuncia suscritos por la Concejala Dña. Amaia Albizu LLubia y por el Concejal D. Josu Mendicute Rodríguez, integrantes del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV; a sus cargos de concejal del grupo del grupo municipal Eibarko EAJ-PNV.

Udalbatza jakinean geratzen da Amaia Albizu Llubia andreak eta Josu Mendicute Rodriguez jaunak zinegotzi-karguei uko egin dietela.

El Pleno Municipal toma conocimiento de las renuncias a sus cargos de concejala y concejal de Dña. Amaia Albizu Llubia y de D. Josu Mendicute Rodríguez.

Hauteskunde Batzorde Zentralari horren berri emango zaio, jakinaraziz Aiora Arrieta Arreitunandia andreak, zerrendan 7. postuan dagoenak, eta Eva Juez Garmendia andreak, 2023ko udal-hauteskundeetarako EAJ-PNVren Eibarko hauteskunde-zerrendan 2. ordezkorearen lekuan dagoenak, beteko dutela hutsik geratzen diren karguak.

Se dará traslado a la Junta Electoral Central de dicha toma de conocimiento, comunicando que el nombre de las personas a quienes corresponde cubrir las vacantes es Dña. Aiora Arrieta Arreitunandia que ocupa el 7º lugar en la lista y Dña. Eva juez Garmendia que ocupa el lugar de 2ª suplente en la lista electoral de EAJ-PNV para las elecciones locales de 2023 - Municipio de Eibar.

12. Galderak eta eskeak.

12. Ruegos y Preguntas.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, **Alkate-Udalburuak** bilkura bukatutzat eman du 21:00etan, eta nik, Idazkari Nagusiak, horren guztiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veintiún horas, el **Sr. Alcalde-Presidente** levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE- UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO

Jon Iraola Iriondo

Daniel Salazar Irusta

